

ANDOAIN

AUZOS AUZO 2017

IRAILA SEPTIEMBRE

BURUNTZA-LEIZOTZ

Osteguna **14** Jueves

19:00. San Martin aztarnategia

[☁ Ontza elkarte]

GOIBURU

Astelehena **18** Lunes

19:00. Frontoia

[☁ San Esteban etxea]

ZUMEA-ERDIGUNEA-OLAGAIN

Asteartea **19** Martes

19:00. Zumea plaza

[☁ Zumeatarra elkarte]

BAZKARDO-KALE TXIKI

Asteazkena **20** Miércoles

19:00. Bazkardoko frontoia

[☁ Aita Larramendi ikastola - Bazkardo]

ALEJANDRO CALONGE

Osteguna **21** Jueves

19:00. Parkea

SORABILLA-BORDA BERRI

Ostirala **22** Viernes

19:00. Sorabillako frontoia

[☁ Sorabillako auzo elkarte]

KARRIKA-ETXEBERRIETA

Astelehena **25** Lunes

19:00. Karrikako frontoia

[☁ Karrika elkarte]

GOIKO ZONALDEA

Asteazkena **27** Miércoles

19:00. Goikoplaza

[☁ Kontsejupea]

PARTE HAR EZAZU!

¡PARTICIPA!



ANDOINGO UDALA



ANDOAIN
AUZOS AUZO

50 neurrien jarraipena

Agintaldiaren hasieran, 2015eko irailean, 50 neurri iragarri ziren. Hauxe da 50 neurri horien garapena, bi urte igaro direnean

- 1. Ur hoditeriaren berrikuntza**
Inbertsio planen bitartez garatzen ari da.
- 2. Eskualdeko garapen agentzia**
Beterri-Buruntzako Udal lankidetzaren hitzarmena sinatu da.
- 3. Hondakinen bilketa sistema**
Errefusaren bilketa bateratu egin da, organikoa sendotuz doa.
- 4. Kale garbiketa zerbitzua**
Udaletik bertatik bideratzeko prozesua martxan jarriko da.
- 5. Elkarbizitza eta memoria**
Elkarbizitza mahaia osatu da, eta hainbat ekitaldi antolatu.
- 6. Gazte plana**
Urrats solteak eman dira.
- 7. Lehenbiziaren obrak**
Inbertsio planaren bidez, alderdi politikoen adostasunarekin.
- 8. Berdintasun batzordea**
Martxan jarri da. Berdintasun teknikaria ere lanean da.
- 9. Partehartze ordenantza**
Gainerako alderdiek jaso dute zirriborroa.
- 10. Euskara kale erabilera sustatu**
Andoaindarrak euskaraz eguna eta hainbat ekimenen bidez.
- 11. Gastu korrantea aztertu**
Jarraipen etengabea egiten da agintaldi osoan zehar.
- 12. Mahai soziala**
Herriko etxe hutsen ikerketa egin da.
- 13. Txakur kakak**
2017an kanpaina egin zen, 2018an berria dator.
- 14. Gizarte babesa**
Ekimen sorta zabala: mikrokredituak, beka, azterlanak,...
- 15. Kaleak garbi kanpaina**
Etenik gabeko lana egiten da Udaletik.
- 16. Uholdeen arrisku plana**
Ziako Plan Hidrologikoan sartzea lortu da.
- 17. Kale argiteria**
Argiteria azpiegitura osoa berritu da, LED sistema ezarri.
- 18. Turismo plangintza**
Turismo mahaia osatu da.
- 19. Merkataritzaren sustapena**
'Andoain txartela' edota lore eta landare azoka ekimenak.
- 20. Kaleak denontzat berdin**
Alor ezberdinetan ekimen ezberdinak burutzen ari dira.
- 21. Hondakinen mahaia**
Organikoa: Balorazioa egiteko dago, urrats berriak adosteko.
- 22. Lokalak: antzerkia, musika**
Kokapen berriak aztertzen une honetan.
- 23. Udal etxebizitzak ordenantza**
Ordenantza onartzeko prest dago.
- 24. Gune estaliak**
Obra berrien lehenbiziaren zerrendan dago.
- 25. Harrera protokoloa**
Urratsik ez da eman oraingo.
- 26. Euskara ikasteko laguntzak**
Dirulaguntzak gorontz doaz, doakotasunaren bidez.
- 27. Lorezaintza ordenantza**
Urratsik ez da eman oraingo.
- 28. CO² isurien murrizketa**
Energiaren erabilera eta kontsumoan neurri ugari hartu dira.
- 29. Euskara plana**
Programa eta ekintza ezberdinen bitartez garatuz doa.
- 30. Kutsaduraren mapa**
Martxan dago. Urtero neurketa egiten da herri osoan.
- 31. Auzoz auzoko parte hartzea**
Urte urte parte hartze prozesua aurrera eramaten da.
- 32. Agenda 21**
Zazpi lerro estrategikoak dagokien sailetan garatzen.
- 33. Andoain.eus**
Webgunea berritu eta martxan da. Baita APP aplikazioa ere.
- 34. Irisgarritasuna**
Urtero inbertsioak egiten dira egoera hobetzeko.
- 35. Euskararen transmisioa**
Gurasolagun eta mintzalagun egitasmoak, hitzaldiak,...
- 36. Ariketa fisiko ez lehiakorra**
Adinekoen artean sustatu nahi da, bereziki.
- 37. Emakumeak kirolean**
Hainbat ekimen martxan eta klubekin elkarlana hastekotan.
- 38. Eskola Kirola positiboa**
Urratsik ez da eman oraingo.
- 39. Kirolean euskaraz**
Hitzarmenak sinatuta, egitasmoetan sakondu nahi da.
- 40. Aniztasun planak**
Urratsik ez da eman oraingo.
- 41. Udal liburutegia**
Kokapen berrirako aukerak aztertzen.
- 42. Haurren hiria**
Agenda 21 ekimenaren bitartez, prozesua abiatu da.
- 43. Landare inbaditzaileak**
Indaditzaileen aurkako neurriak martxan jarri dira urtero.
- 44. Ibai ertzen berreskurapena**
Udalak ekintza plana adosten du Ur Agentziarekin.
- 45. Udal komunikazioa**
Aldizkaria, webgunea, APP aplikazioa, auzoz auzoko bilerak,...
- 46. Biodibertsitatea**
Azterketa prozesuan da.
- 47. Udal ordezkarien harrera**
Udala herritar zein elkarte guztietara irekita dago.
- 48. Mendi publikoen kudeaketa**
Urratsik ez da eman oraingo.
- 49. Erabakitze eskubidea**
Herri ekimenari babesa emateko konpromisoa.
- 50. Adinduen ariketa fisikoa**
Eskualdeko Osasun Saila, herriko gizarte eragile eta jubilatuekin lankidetzan martxan.

EGITASMOAK AURRERA BEGIRA

Memoriaren aitortza eta Elkarbizitza

Duela bi urte Andoaingo Udaleko alderdi politikoek bakea eta bizikidetzaren inguruko elkarriketa eraikitzaile bat bultzatzeko prozesu diskretu bati ekin genion. Mahai horrek egindako lanaren fruitu izan dira Memoriaren eguna ospatzeko adostutako testuak eta gai honen inguruko lehen zinema zikloa. Prozesu honen baitan, alderdi politiko guztiek erabaki dugu Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkartearekin batera Andoainen gertatutakoaren inguruko txosten bat egitea, hilketak, giza-eskubideen bortxaketak eta gure iragan gertuan gertatutako beste indarkeria ekintzen memoria jasotzeko.

Hileta zibilak

Ezaguna da zernolako aniztasun ideologiko, erlijioso eta kultural duen gure jendarteak. Andoaingo Udalak, zentzu horretan, eta erakunde publiko bezala, Estatu akonfesional eta laikoaren printzipioak gauzatzeko bermatzaile izan behar du. Hain zuzen, hileta edota omenaldi zibilen eskaera geroz eta handiagoa da, eta erantzun egin behar diogu behar sozial horri. Zentzu horretan, lanean ari gara hileta zibilak gauzatu ahal izateko ordenantza proposamena osatzen. Epe laburrean, gainerako alderdiei aurkezteko moduan izango da proposamena.

Agenda 21 egitasmoa

Agenda 21 egitasmoaren bitartez, Andoaingo herrian zenbait espazio berritzeko edota egokitzeko partaidetza prozesua abiatu genuen duela hilabete batzuk. Partaidetza prozesu horretan 6-18 urte bitarteko haur eta gazteek eta 60 urtetik gorako pertsonak hartu dute parte, baita udaleko teknikari eta ordezkari politikoek ere. Besteen artean, erabilera urriko espazioak nola biziberritu aztertu da. Oraingo lana egindako proposamen guztiak apurka garatzen joatea izango da.

Partaidetza eta Gardentasun Ordenantzak eta Udal Barne Araudi berria

Instituzioek herritarren beharrak asetzeko akuiluak izan behar dute. Herritarrak laguntzeko, informatzeko eta aholkatzeko gaude, beraz, beharrezkoa dugu horretarako mekanismo guztiak behar bezala antolatuta edukitzea. Horregatik, Herritarren Partaidetza Ordenantza eta Gardentasun Ordenantzaren proposamenak lantzen dihardugu. Era berean, Udalak onartua duen Barne Araudia egokitzeko lanean gabilta.

Liburutegia

Andoaingo Liburutegia txiki geratu da espazioari dagokionez. Nabarmena da ez dituela andoaindarren beharrak asebetetzen, eta horregatik, epe labur-ertainean irtenbidea eman beharrean gaude. Horretarako, herriko beste espazioen inguruan azterketa egiten ari gara, aukera onena eta bideragarriena zein izan daitekeen erabaki eta mahai-gainean jartzeko.

Arrate Frontoiaren berrikuntza


Andoaingo Udalak Arrate Frontoian hainbat konponketa egiteko diru-laguntza eskuratu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Konponketa horiek kirol jardueretarako baldintza hobeak eskainiko dituzte; halaber, gaur egun bertan egiten diren bestelako jarduera batzuen antolaketa berria lantzen dihardugu.

Turismo plana

Gure herriko txoko eta espazioak balioan jartzeko asmoz, jarri zen martxan Turismo Mahaia duela hilabete gutxi. Egitekoen artean, modu ordenatu eta koherente batean, herriko eskaintza eskuragari jartzeko asmoa dago. Besteak beste, Leitzaranen natur jarduerak antolatzea, herrian dugun alojamendu gabeziari irtenbidea ematea, kultur ondarea balioan jartzea...

Egoera ekonomikoa

Azken urteotako datuek Andoaingo Udalaren egoera ekonomikoaren hobekuntza adierazten dute

 Gastu korrontea arintzeko neurriak	
Kaleko argiteria (2016)	
Inbertsioa:	1.000.000 €
• LED sistema	
• Kontroletako mando berriak	
2016ko maiatzaren faktura:	23.374 €
2017ko maiatzaren faktura:	12.773 €
Aurrezkia hilabetean:	10.600 €
Urte osoko aurrezkia:	127.200 €
Hondakinen tratamendua (2016)	
Inbertsioa:	122.974,23 €
2016ko otsaileko faktura:	111.902 €
2017ko otsailaren faktura:	95.516 €
Aurrezkia hilabetean:	16.386 €
Urte osoko aurrezkia:	196.632 €
Ura (2016)	
Inbertsioa:	1.200.000 €
• Ur edangarriaren eta saneamenduaren berritzea	
• Bestelako konpokatik	
M³ kontsumoa (hiruhilekoa)	
2016ko faktura:	408.511 m ³
2017ko faktura:	331.191 m ³
Aurrezkia:	77.320 m ³
Gastua (hiruhilekoa)	
2016ko faktura:	318.283 €
2017ko faktura:	260.627 €
Aurrezkia:	57.656 €
Alderaketa (2015-2017)	
M³ kontsumoa (urte osoa)	
2015:	2.153.070 m ³
2016:	1.561.433 m ³
2017*:	1.324.764 m ³
Gastua	
2015:	1.597.707 €
2016:	1.237.132 €
2017*:	1.040.000 €

* (2017 aurreikuspena)


Andoaingo Udalak, joan zen ekainean, egoera ekonomikoari buruzko datuak eskaini zituen Bastero Kulturgunean, herritarrei zuzendutako ekitaldi irekian. 2017an dagoeneko atzean geratzen ari dira iraganeko estuasunak, eta jada esan daiteke egoera normalizatua duen udalerrria dela Andoaingo. 23 milioi euroko aurrekontuarekin, 2017rako 2,5 milioi euroko inbertsioa aurreikusten da. Ana Carrere alkateak bertan adierazitakotik honako pasartea nabarmendu daiteke: "Andoain, zulo zulotik atera da eta Gipuzkoaren batz bestekora gerturazten ari da. Zuhurtziaz bada ere, egoera normalizatuan gaudela esan genezake. Azken urteotan hartutako neurriekin eboluzio ona izan da, eta horrek eragin zuzena izan du aldagai ekonomikoaren balio positiboetan. Duela urte batzuk dirurik ez zegoela eta ezer ez eskatzeko adierazten ari ginen ia-ia. Udaletxeko ateak ireki eta gastuak ordaintzeko nahikoa lan genuelako. Egoera txarrean geundenean kontuen berri emateko erantzukizuna hartu genuen. 2017an, egoera ekonomikoa hobea bada ere, erantzukizun berari heldu nahi diogu".

Orrialde honetan ikus daitezkeen datu eta grafiko ezberdinak egoera ekonomiko hobearen adierazle dira. Andoaingo udalerrria gaur egun balio positiboetan dabil, gastua estutuz eta dirua aurrezteko neurriak hartuz. Besteak beste, argiterian, hondakinen tratamenduan eta ur zerbitzuan. Inbertsioak eta hobekuntzak egin eta gero, zerbitzu bera edo hobea eskaintzen da gastu korrontea biderkatu gabe. Alderantziz, hartutako neurriekin argindarrean edota ur zerbitzuan Udala diru asko aurrezten ari da.

Gauzak horrela 2016ko aurrezki garbia 1,7 milioi eurokoa izan zen. Oso datu aipagarria da, udalerrri baten autofinantzaketaren adierazle nagusia horixe baita. Datu hau beti positiboa izan behar da. 2008, 2009 eta 2011 urteetan aurrezki garbia negatiboa zen, eta Udala maileguei esker finantzatu behar izan zen. 2012-2016 zikloan egoera hori irauli eta autofinantzaketak handituz joan da. Egoera normalizatu, Andoaingo Udala etorkizuneko egitasmoari heltzeko moduan da.


AURREZKI GARBIA

2016: 1.699.383 €



Grafikoan ikus daitezkeenez, 2008-2010 urteetan Udalaren kontuak orekatzeko zailtasun handiak izan ziren. 2011tik aurrera hartutako neurriek esker, aldagai ekonomikoak aldeko bilakatu ziren. Gastu korrontean hartutako neurri berriak garapen positiboa ulertzeko giltzarri dira.

BANKETXEEN MAILEGUAK



Grafikoak bi igoera erakusten ditu. Lehenengoa Udalak funtzionamendu gastuei aurre egiteko eskaturiko mailegua da. Garai hartan diru sarreren eta gastuen artean oso alde estua zegoen. Bigarren igoera plenoan adosturiko inbertsio planari aurre egiteko eskatutako maileguari lotuta dago. Egoera bestelakoa da orainoan, diru sarreren bitartez iristen dena baino gutxiago gastatzen baita.

